



Tributu nagusien laburpena

Dirubilketa metatua, 2020ko abuztura bitartean

Arabako Foru Ogasunaren dirubilketa % 19,6 gutxitu da

Zerga gehienek hobekuntza txiki bat izan dute aurreko hileko datuekin alderatuta. Hala ere, oraindik nabarmena da aurreko urtearen aldean izandako beherakada, bai likidezia errazteko neurriengatik, bai jarduera ekonomikoaren murrizketagatik

TRIBUTU ITUNDUAK, GUZTIRA (laburpena)

Arabako Foru Ogasunak abuztura arte izandako dirubilketa metatua 1.201 milioikoa izan da, hau da, aurreko urteko egun baino 293 milioi gutxiago. Horrek esan nahi du % 19,6ko beherakada egon dela aurreko urteko dirubilketaren aldean.

Horrela, bada, jaitsiera nabarmena da oraindik, bai jarduera ekonomikoa murriztu izanagatik (BEZean eta hidrokarburoetan islatua) eta enpresek eta familiek likidezia izan zezaten Ogasunak hartutako neurri fiskalengatik (PFEZean eta sozietateen gaineko zergen islatua). Hala eta guztiz ere, bilakaerak erakusten du hiletik hilera apur bat hobetzeko joera dagoela.

“Adi jarraitzen dugu dirubilketaren eta ekonomiaren bilakaerarekin. Erantzukizunez eta urte hasieran, pandemia iritsi aurretik, aurreikusitakoaz bestelako egoera batekin kudeatzen jarraitzen dugu. Hala ere, datozen hilabeteak, geroraturako zergen epeak amaitzen direnean, funtsezkoak izango dira osasun krisiak gure ekonomian duen benetako eragina ezagutzeko”, azaldu du diputatu nagusi Ramiro Gonzálezek.



ZUZENEKO ZERGAK: 612 milioi euro (-% 13,9)

1) PFEZ: 465,4 milioi (-% 11,3)

PFEZaren kuota diferentziala (errenta kanpaina) aurreko urtekoa baino 41,7 milioi gutxiago da, zergaren lehen epearen ordainketa, aitorten positiboen kasuan, azarora arte atzeratzearen ondorioz. Horrek esan nahi du % 73,4ko beherakada egon dela kontzeptu horrengatik dirubilketan, baina azaroko ordainketaren ostean berreskuratzea espero da, zergadunek Arabako Ogasunaren errentaren kanpainako diru sarrerak egiten dituztenean.

Nabarmendu beharra dago, halaber, lan atxikipenen bilakaera, enpleguaren eta soldaten joera markatzen baitute. Kasu horretan, %0,6ko jaitsiera izan da. Datu horrek, negatiboa bada ere, hiletik hilerako kontzeptu horretan hobekuntza txiki bat izan dela adierazten du. Izan ere, joan den hilean jaitsiera %0,83koa izan zen eta ekainean %1,4koa.

Autonomoek egiten dituzten ordainketa zatikatuak % 61,6 jaitsi dira, eta horrek eragina du 2020ko lehen seihilekorako ordainketa horien baliogabetzearen bilketan. Jarduera ekonomikoak garatzen dituzten pertsona fisikoen finantzaketa errazteko hartutako neurria da. Horrek esan nahi du dirubilketa gutxitu egin dela kontzeptu horrengatik, 14 milioi baino zertxobait gehiago.

2) SOZIJETATEEN GAINEKO ZERGA: 102,6 milioi (-% 29,6)

Jaitsiera hori, PFEZaren kasuan bezala, mikroenpresentzako eta enpresa txikientzako sozietateen gaineko zergaren aurkezpena eta ordainketa irailaren amaierara arte atzeratu izanak eragin du. Horrela, zergaren kuota diferentzialaren kontzeptuan 78,5 milioi euro bildu dira, aurreko urtean baino 45 milioi gutxiago (-%36,5) Beraz, dirubilketaren murrizketa bat da, eta datorren hilean berreskuratzea espero da.



ZEHARKAKO ZERGAK: 506,3 milioi euro (-% 23,4)

Jarduera ekonomikoaren eta kontsumoaren beherakadak eragina izan du zerga horien bilketaren beherakadan.

1) BEZa: 330,2 milioi euro (-% 27)

BEZak hobekuntza arina izan du aurreko hilaren aldean, baina jaitsiera nabarmena izan du jarduera ekonomikoaren moteltzearen ondorioz.

Guztira 330,2 milioi euro bildu dira, iaz baino 122 milioi gutxiago.

Hilez hileko bilakaeran ikus daitekeenez, abuztuan %27ko jaitsiera metatua izan arren, uztailean beherakada handiagoa izan zen (-%28,86), baita ekainean ere (-%34,2).

2) HIDROKARBUROAK: 111,4 milioi euro (-% 20)

Zerga horretan 111,4 milioi euro bildu dira, aurreko urteko aldi berean baino ia 28 milioi gutxiago; horrek esan nahi du kontzeptu horrengatik bildutako zenbatekoa % 20 jaitsi dela.